

**2026KO OTSAILAREN 06KO 058. ALKATETZAKO DEKRETUA**

OINARRIA: Hondakinen arloko edozein politikaren lehen helburua hondakinen sorrerak eta kudeaketak giza osasunean eta ingurumenean dituen ondorio negatiboak ahalik eta gehien murriztea izan behar da.

Baliabideen erabilera eraginkorrari dagokionez, Arabako Lurralde Historikoan hondakinen kudeaketa zabortegean dago oraindik, eta, beraz, hierarkia-printzipioa zorrotz aplikatzen duen hondakin-politika batek iraunkortasun handiagoa ekarriko du, bai eta eredu ekonomiko zirkularrak ezartzea ere.

OINARRIA JURIDIKOA: Ekonomia zirkular baterako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, toki-erakundeek aipatutako legearen 12.5 artikuluan aurreikusitako ordenantzak onartuko dituzte, horiek indarrean jartzen direnetik aurrera, beren eskumeneko hondakinak bildu eta kudeatzeari buruzko betebeharrak ezarritako epeetan betetzen direla bermatzeko.

OINARRI JURIDIKOA: Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua arabera,

.- lege- edo erregelamendu-proiektua edo -aurreproiektua egin aurretik, kontsulta publiko bat egingo da administrazio eskudunaren web-atariaren bidez. Kontsulta horretan, etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuen eta antolakunderik adierazgarrienen iritzia jasoko da, honako hauei buruz:

- Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- Onartzeko beharra eta egokitasuna.
- Arauaren helburuak.
- Egon daitezkeen ordezkari irtenbide erregulatuak eta ez-erregulatuak.

.- ekimenaren testua idatzi aurretik kontsulta egiteari kalterik egin gabe, arauak pertsonen eskubide eta interes legitimoak eragiten dienean, zuzendaritza-zentro eskudunak dagokion web-atarian argitaratuko du testua, eragindako herritarrei entzunaldia emateko eta beste pertsona edo erakunde batzuek egin ditzaketan ekarpen gehigarri guztiak biltzeko. Era berean, zuzenean eskatu ahal izango da arauak ukitzen dituen eskubide edo interes legitimoak dituzten eta arauaren xedarekin zuzeneko lotura duten helburuak dituzten pertsonak biltzen edo ordezkatzeko dituzten erakunde edo elkarten iritzia.

.- artikulua honetan araututako kontsulta, entzunaldia eta informazio publikoa arauaren hartzaile izan daitezkeenek eta hari buruzko ekarpenak egiten dituztenek beren iritzia emateko aukera izan dezaten moduan egin beharko da. Horretarako,



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguraren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalnegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
70144708b0010616d5707ea189020c1cn

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TXOPITEA ZUGADI IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA)	Idazkari-kontuhartzailea / Secretario Interventor Alkatea / Alcalde	06/02/2026 12:16 06/02/2026 12:27

BARRUNDIAKO Udala  
(ARABA)



Ayuntamiento de BARRUNDIA  
(ÁLAVA)

beren esku jarri beharko dituzte beharrezko dokumentuak, argiak eta zehatzak izango direnak, eta gaiari buruzko iritzia eman ahal izateko behar den informazio guztia bildu beharko dute.

**ZERA ERABAKITZEN DUT**

LEHENA.- Kontsulta publikoa irekitzea hogeit egun balioduneko epean, udal-hondakinen biltzea arautzen duen ordenantza izapidetzeari buruzko informazio guztia udalaren web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita (ERANSKINA).

Aurrenean zehaztutako erabakia hitzez hitz bere osotasunean irakurrita bere sinaketa gauzatzen da, nik, idazkari bezala egiaztatzen dudalarik.

ALKATEAK,

IDAZKARIAK,

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TXOPITEA ZUGADI IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA)	Idazkari-kontuhartzailea / Secretario Interventor Alkatea / Alcalde	06/02/2026 12:16 06/02/2026 12:27

2026 - 58  
06/02/2026  
Alkatezaren ebazpenen liburua / Libro de Resoluciones de Alcaldía

BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguraren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:  
<https://udalnegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
70144708b0010616d5707ea189020c1cN

BARRUNDIAKO Udala  
(ARABA)



Ayuntamiento de BARRUNDIA  
(ÁLAVA)

**ERANSKINA**

**BARRUNDIAKO UDALEAN UDAL-HONDAKINAK BILTZEA  
ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

**ZIOEN AZALPENA**

Hondakinen arloan indarrean dagoen araudiak, lurraldez gaindi zein lurraldean bertan, hiri-hondakinen bilketari, kudeaketari eta tratamenduari dagozkien alderdi guztiak behar bezala arautzeko aukera ematen du. Hala, gaur egun arau multzo bat dago, hondakinen kudeaketaren arloan proposatutako helburuak lortzeko ekintzak nola garatu behar diren ezartzen duena.

Udal-hondakinei buruzko esparru juridiko sektorialean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 30eko 2018/851 (EB) Zuzentarauaren aplikazioa nabarmendu behar da. Zuzentaru horrek honako hauek aldatzen ditu: hondakinei buruzko 2008/98/EE Zuzentaru; Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legea; Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea; 7/2022 Legea erregelamendu bidez garatzeko hainbat araudi, eta lege horren aurreko erregelamenduak.

Udal-hondakinei dagokienez, sektoreko esparru juridikoaren araudi espezifiko ez bada ere, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 86.2 artikulua berariaz adierazten du hondakinen bilketa, tratamendua eta aprobetxamendua toki-erakundeen alde erreserbatu behar direla. Erreserba hori, gainera, bat dator Legearen 26.1.a) artikuluan berariaz jasotako betebeharrarekin, zeinaren bidez udalerrri orok bere biztanleei hondakinak biltzeko zerbitzua emateko betebeharra ezartzen baita.

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TXOPITEA ZUGADI IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA)	Idazkari-kontuhartzailea / Secretario Interventor Alkatea / Alcalde	06/02/2026 12:16 06/02/2026 12:27



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguraren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:  
<https://udalnegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
 70144708b0010616d5707ea189020c1cn

**BARRUNDIAKO Udala**  
(ARABA)



**Ayuntamiento de BARRUNDIA**  
(ÁLAVA)

Hori alde batera utzita, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak Espainiako Estatuan hondakinei oinarritzko izaerarekin aplikatu beharreko araubide juridikoa ezartzen du, eta, hala, barne-ordenamenduan txertatzen ditu EBk 2018an onartutako hondakinei buruzko zuzentarauen lege-maila behar duten arauak – 2018/85 (EB) Zuzentaraua –, eta, ondorioz, indargabetu egiten du aurreko Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea.

Testuinguru horretan, 7/2022 Legeak, beste neurri batzuen artean, toki-erakundeek hondakinen arloan dituzten eskumenak arautzen ditu, eta, horrela, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 eta 26. artikuluetan xedatutakoa zehazten du. Bestalde, azken xedapenetako zortzigarrenean jasotzen du toki-erakundeek lege horretara egokitzen diren ordenantzak onartu behar dituztela, beren eskumeneko hondakinak biltzeari eta kudeatzeari buruzko betebeharrak ezarritako epeetan betetzen direla bermatzeko.

7/2022 Legeak udal-eskumeneko hondakinen multzoan sartzen ditu zerbitzuen edo industriaren berezko jardueraren ondorioz sortzen ez diren zerbitzuetan eta industrietan sortutako etxeko hondakinak, merkataritza-hondakinak eta aurrekoen osaeran eta kantitatean antzekoak direnak. Horrela, eta 7/1985 Legean xedatutakoarekin bat etorritik, 7/2022 Legearen 12.5 artikuluan ezartzen da toki-erakundeak direla, nahitaezko zerbitzu publiko gisa, etxeko hondakinen bilketa, garraioa eta tratamendua beren ordenantzek ezartzen duten moduan emateko eskumena duten administrazioak. Eta, era berean, toki-erakundeek merkataritza-hondakin arriskugabeak kudea ditzakete, 7/2022 Legearen 12.5 e) 2. eta 20.3 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, baldin eta establezimenduek beren borondatez erabakitzen badute udal-kudeaketako sistemari heltzea, edo, toki-erakundeak bere kudeaketa-sistema propioa ezarri badu eta ezartzen badu, arrazoituta eta ekonomia- eta ingurumen-efizientzia eta efikazia handiagoko irizpideetan oinarrituta, hondakinen ekoizle horiek nahitaez sartzea udal-kudeaketako sisteman. Hala ere, merkataritza-hondakinen ekoizlea ez bada sistema publikora biltzen, behar bezala egiaztatu beharko dio toki-erakundeari bere hondakinak behar bezala kudeatzen dituela, 7/2022 Legearen 20.3 artikuluan ezartzen den bezala.

Azkenik, 7/2022 Legea erregelamendu bidez garatzeko arau gisa, Ontzietan eta Ontzien Hondakinei buruzko abenduaren 27ko 1055/2022 Errege Dekretuak zehatz-mehatz arautzen du toki-

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:

JON TXOPITEA ZUGADI  
 IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA)

Kargua / Cargo:

Idazkari-kontuhartzailea / Secretario Interventor  
 Alkatea / Alcalde

Data / Fecha:

06/02/2026 12:16  
 06/02/2026 12:27



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguraren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:  
<https://udalenegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>

70144708b0010616d5707ea189020c1cN

**BARRUNDIAKO Udala**  
(ARABA)



**Ayuntamiento de BARRUNDIA**  
(ÁLAVA)

erakundeek ontzien hondakinei buruz dituzten eskumenen araubidea. Eta, era berean, 7/2022 Legearen aurretik onartutako zenbait erregelamenduk toki-erakundeen eskumen-esparruari buruzko zenbait alderdi deskribatzen dituzte garrantzi bereziko hondakinei dagokienez, hala nola tresna elektriko eta elektroniko hondakinak, pila eta metagailuenak eta abandonatutako ibilgailu eta pneumatikoenak:

27/2021 Errege Dekretua, urtarrilaren 19koa, errege-dekretu hauek aldatzen dituena: 106/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, Pilei eta metagailuei eta horien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzkoa, eta 110/2015 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, Tresna elektriko eta elektroniko hondakinei buruzkoa.

731/2020 Errege Dekretua, abuztuaren 4koa, errege-dekretu hau aldatzen duena: 1619/2005 Errege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Erabiltzen ez diren pneumatikoen kudeaketari buruzkoa (puntu garbietan erabiltzen ez diren pneumatikoak biltzeari dagokionez).

265/2021 Errege Dekretua, apirilaren 13koa, Bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuei buruzkoa eta abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Erregelamendu Orokorra aldatzen duena (ibilgailu abandonatuak etxeko hondakintzat hartzeari dagokionez).

Beraz, azaletik deskribatutako arau-aldaketen aurrean, nahitaezkoa da udal-eskumeneko hondakinen bilketa arautzen duen ordenantza hau onartzea.

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:

JON TXOPITEA ZUGADI  
 IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA)

Kargua / Cargo:

Idazkari-kontuhartzailea / Secretario Interventor  
 Alkatea / Alcalde

Data / Fecha:

06/02/2026 12:16  
 06/02/2026 12:27



## I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

## 1. artikulua. Xedea eta aplikazio-eremua.

1. Ordenantza honen helburua Berrundiako Udalean udal eskumeneko hondakinak bildu eta uztera zuzendutako jokabide eta jarduera guztiak arautzea da. Aurrerantzean Udala, hierarkia-printzipioa errespetatuz, hura sortzea saihesteko, eta hori ezinezkoa denean, hurrenkera horretan, kudeaketa errazteko, berrerabiltzeko prestaketaren, birziklatzearen eta balorizazio material edo energetikorako beste modu batzuen bidez, zabortegetan biltegitratzea murrizteko eta, horrela, ingurumen-emitza globalik onena lortzeko, giza osasunaren eta ingurumenaren gaineko inpaktu kaltegarriak arinduz.
2. Udal-eskumenak erabiliz, ordenantza honek hondakinen eta toki-araubidearen arloko Estatuko eta autonomia-erkidegoko legeria garatzen du, eta uneoro aipatu legeriaren arabera interpretatu eta aplikatu behar da.
3. Ordenantza hau orokorrean aplikatuko zaie udal-eskumeneko hondakinak kudeatzeko zerbitzuei, beren eskumen-eremuan, bai eta, hala badagokio, osorik edo zati batean, eremu horretatik kanpo ematen diren zerbitzuei ere.
4. Ordenantza honetako arauak analogiaz aplikatuko zaizkie berariaz araututa ez dauden eta, beren izaera dela-eta, aplikazio-eremuan sartuta dauden kasuei.
5. Udalak komenigarritzat jotzen duen interpretazioa ezarriko du ordenantza honen aplikazioan sor daitezkeen zalantzetan.
6. Udalak udalerrian horretarako prestatutako baliabide, instalazio edo zerbitzuetan hondakinak uzten dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiak ordenantza honetan eta ordenantza hau interpretatzeko edo garatzeko ematen diren arauetan xedatutakoa bete beharko dute.
7. Zerbitzu horiek emateko prezioei dagokienez, hondakinak kudeatzeko zerbitzuen finantzaketa arautzen duen ordenantza aplikatuko da, une bakoitzean indarrean dagoena eta udalak onartua.

## 2. artikulua. Araubide juridikoa.

1. Ordenantza honetan araututako jarduera eta jokabideei aplikatu beharreko araubide juridikoa, gai horretan aplikatzekoa den Estatuko eta autonomia-erkidegoko legerian eta zuzenean aplikatzekoa den Europako araudian aurreikusitakoa izango da.
2. Ordenantza honen arauetak honako xedapen hauen printzipioak eta horiek garatzeko edo aplikatzeko arauak betetzen ditu:



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Segururaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:  
<https://udalnegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
70144708b0010616d5707ea189020c1cn



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:  
<https://udalnegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
 70144708b0010616d5707ea189020c1cn



- Batzordearen 2014/955/EB Erabakia, 2014ko abenduaren 18koa, hondakinen zerrendari buruzko 2000/532/EE Erabakia aldatzen duena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentarauarekin bat etorritik.
- 7/2022 Legea, apirilaren 8koa, ekonomia zirkular baterako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa.
- 1055/2022 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, ontziena eta ontzien hondakinena.
- 265/2021 Errege Dekretua, apirilaren 13koa, bizitza baliagarriaren amaieran dauden ibilgailuei buruzkoa.
- 553/2020 Errege Dekretua, ekainaren 2koa, estatuaren lurraldearen barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duena.
- 646/2020 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, hondakinak zabortegetan uztea ezabatzeko jarduera arautzen duena.
- 293/2018 Errege Dekretua, maiatzaren 18koa, plastikozko poltsen kontsumoa murrizteari buruzkoa eta ekoizleen erregistroa sortzen duena.
- 110/2015 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzkoa (urtarrilaren 19ko 27/2021 Errege Dekretuaren bidez sartutako aldaketan arabera).
- 106/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, pilei eta metagailuei eta haien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzkoa (uztailaren 24ko 710/2015 Errege Dekretuaren, uztailaren 23ko 943/2010 Errege Dekretuaren eta urtarrilaren 19ko 27/2021 Errege Dekretuaren bidez sartutako aldaketan arabera).
- 105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituena.
- 1619/2005 Errege Dekretua, abenduaren 30ekoa, erabiltzen ez diren pneumatikoen kudeaketari buruzkoa (abuztuaren 4ko 731/2020 Errege Dekretuaren bidez sartutako aldaketan arabera).

### 3. artikulua. Definizioak.

1. Aurreko artikuluan adierazitako arau-xedapenetan ezarritakoaren arabera, ordenantza honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako definizio hauek hartuko dira kontuan:
  - a. Landare-olio erabiliak: etxeko frijitzeko jardueretako edo taberna, jatetxe, hotel eta beste jatetxe-zerbitzu batzuetako landare-olioen hondakinak, bai eta kontserben olioak ere. Ez dira hemen sartzen beste elikadura-koipe batzuk.
  - b. Agentea: hirugarrenen enkarguz hondakinak balorizatzeko edo ezabatzeko lanak antolatzen dituen pertsona fisiko edo juridiko oro, hondakinen jabetza fisikorik hartzen ez dutenak barne.

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TXOPITEA ZUGADI IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA)	Idazkari-kontuhartzailea / Secretario Interventor Alkatea / Alcalde	06/02/2026 12:16 06/02/2026 12:27



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguraren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:  
<https://udalenegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>

70144708b0010616d5707ea189020c1cN



- c. Etxeko animaliak: gizakiek abeltzaintzaz bestelako helburuetarako elikatzen eta mantentzen dituzten baina kontsumitzen ez dituzten espezieetako edozein animalia.
- d. Biohondakina: etxeetako, lorategietako, parkeetako eta zerbitzuen sektoreko landare-hondakin biodegradagarria, bai eta etxe, bulego, jatetxe, handizkako, jantoki, sukaldaritza kolektiboko zerbitzu eta txikizkako kontsumo-establezimenduetako elikagai- eta sukalde-hondakinak ere, besteak beste, eta elikagaiak eraldatzeko instalazioetatik datozen hondakin konparagarriak.
- e. Konposta: bereizita bildutako hondakin biodegradagarrien tratamendu biologiko aerobio eta termofilotik lortutako material organiko higienizatua eta egonkortua. Ez da konpost gisa hartuko material bioegonkortua.
- f. Ekonomia zirkularra: ekonomiaren produktuen, materialen eta gainerako baliabideen balioak ahalik eta denbora gehien irauten duen sistema ekonomikoa, produkzioan eta kontsumoan haien erabilera efizientea sustatuz, erabileraren ingurumen-inpaktua murriztuz, eta hondakinak eta substantzia arrisksuen askapena ahalik eta gehien murriztuz bizi-zikloaren fase guztietan, hala badagokio, hondakinen hierarkia aplikatuz.
- g. Deuseztatzea: balorizazioa ez den edozein eragiketa, baita bigarren mailako ondorioa substantzien edo energiaren aprobetxamendua denean ere. 7/2022 Legearen I. eranskinean, ezabatzeko eragiketen zerrenda ez-zehatza jasotzen da.
- h. Ontzia: edozein motatako materialekin fabrikatutako produktu oro, salgaiak, lehengaietatik hasi eta amaitutako gaietaraino, eduki, babestu, manipulatu, banatu eta aurkezteko erabiltzen dena, fabrikazio-, banaketa- eta kontsumo-katearen edozein fasetan. Bilgarriztat hartzen dira, halaber, xede horrekin erabilitako erabili eta botatzeko gai guztiak.
- i. Merkataritza-establezimendua: salmenta-lokal eta -puntu finkoak, produktuak handizka edo txikizka saltzeko merkataritza-jarduerak, ostalaritza- eta jatetxe-jarduerak edo izaera horretako zerbitzuak publikoari emateko jarduerak erregulariki egiten dituztenak, bai eta legezko edo erregelamenduzko xedapen baten bidez kalifikazio hori jasotzen duten beste edozein esparru mugatu ere.
- j. Merkataritza-establezimendu kolektiboa: esparru, parke edo eraikin beraren barruan kokatutako lokal edo salmenta-puntu multzo batek osatzen duena, merkaturatzeko lizentzia bakarra duena, nahiz eta salmenta-lokal edo -puntu bakoitzak bere jarduera egin enpresa-mailan modu independentean.
- k. Ekitaldi publikoak: honako jarduera hauek hartzen dira halakotzat:
- i. Ikuskizun publikoak: ikusleak biltzen dituzten ekitaldiak, haien kontura parte hartzen duten enpresek, artistek edo exekututzaileek eskaintzen dituzten antzezpen, emanaldi, erakusketa edo proiektzioak ikusteko.



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguraren bidez egiaztu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:  
<https://udalenegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>

70144708b0010616d5707ea189020c1cN

**BARRUNDIAKO Udala**  
(ARABA)



**Ayuntamiento de BARRUNDIA**  
(ÁLAVA)

- ii. Jolas- eta kirol-jarduerak: jardueran parte hartzeko edo enpresak aisialdirako, entretenimendurako, dibertsiorako, kirolerako eta jarduera fisikorako eskaintzen dizkien zerbitzuak jasotzeko helburuarekin bertaratzen den publikoa biltzen dutenak.
  - iii. Jarduera soziokulturalak: jarduera sozial eta kulturaletan parte hartzeko asmoz pertsona talde bat bildu edo kontzentratu dezaketanak, jarduera politiko edo aldarrikatzaileetan izan ezik, hala nola manifestazio, mitin politiko edo antzekoetan.
- l. Hondakinen kudeaketa: hondakinak biltzea, garraiatzea eta tratatzea, eragiketa horiek zaintzea barne, bai eta zaborteziak itxi ondorengo mantentze-lanak ere, negoziatzaile edo agente gisa egindako jarduketak barne.
- m. Hondakinen kudeatzailea: hondakinen kudeaketa osatzen duten eragiketako edozein egiten duen pertsona edo erakundea, publikoa edo pribatua, baimen edo komunikazio bidez erregistratua, hondakinen ekoizlea izan edo ez.
- n. Negoziatzailea: hondakinak erosten eta saltzen bere kontura jarduten duen pertsona fisiko edo juridiko oro, hondakinen jabetza fisikoa hartzen ez dutenak barne.
- o. Hondakinen edukitzailea: hondakinen ekoizlea edo hondakinak dituen beste pertsona fisiko edo juridiko bat. Hondakinen edukitzailetzat joko da abandonatutako hondakinak edo zaborra sakabanatuta dagoen lursaileko katastroko titularrak, eta hondakin horien administrazio-arduraduna izango da, abandonuaren egile materiala edo aurreko edukitzailea identifikatu ahal diren kasuetan izan ezik.
- p. Berrerabiltzeko prestatzea: balorizazio-eragiketa, hau da, egiaztatzea, garbitzea edo konpontzea. Horren bidez, hondakin bihurtu diren produktuen produktuak edo osagaiak prestatzen dira, aldeaz aurretik beste eraldaketarik egin gabe berrerabili ahal izateko eta, aplikatzekoak diren produktu-arau teknikoak eta kontsumo-arauak betez gero, hondakintzat hartzeari uzteko.
- q. Prebentzioa: substantzia, material edo produktu bat sortzeko eta diseinatzeko, ekoizteko, banatzeko eta kontsumitzeko fasean hartutako neurrien multzoa, honako hauek murrizteko:
  - i. Hondakin kantitatea, baita produktuak berrerabiliz edo produktuen balio-bizitza luzatuz ere.
  - ii. Sortutako hondakinek ingurumenean eta giza osasunean dituzten eragin kaltegarriak, materialen edo energiaren erabileran aurrezte barne.
  - iii. Materialetan eta produktuetan arriskutsuak diren substantzien edukia.
- r. Hondakinen ekoizlea: hondakinak sortzen dituen edozein pertsona fisiko edo juridiko (hondakinen hasierako ekoizlea) edo hondakin horien izaera edo konposizioa aldatzea eragiten duten aurretiazko tratamenduko, nahasketako edo bestelako eragiketak egiten dituen edozein pertsona.

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TXOPITEA ZUGADI IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA)	Idazkari-kontuhartzailea / Secretario Interventor Alkatea / Alcalde	06/02/2026 12:16 06/02/2026 12:27



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:  
<https://udalenegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>

70144708b0010616d5707ea189020c1cN

BARRUNDIAKO Udala  
(ARABA)



Ayuntamiento de BARRUNDIA  
(ÁLAVA)

- s. Garbigunea: tokiko erakunde baten bilketa-eremuan biltegitratze-instalazioa, etxeko hondakinak berezita biltzen dituen.
- t. Birziklatzea: balorizazio-eragiketa oro, zeinaren bidez hondakinen materialak produktu, material edo substantzia bihurtzen diren berriro, bai jatorrizko helburuarekin, bai beste edozein helburuarekin. Barne hartzen du material organikoa eraldatzea, baina ez balorizazio energetikoa, ezta erregai gisa edo betelanetarako erabiliko diren material bihurtzea ere.
- u. Bilketa: hondakinak modu profesionalean biltzea, sailkatzea eta biltegitratzea, ondoren tratamendu-instalazio batera eramateko.
- v. Bilketa berezia: hondakin-fluxu bat berezita mantentzen den bilketa, motaren eta izaeraren arabera, tratamendu espezifiko bat errazteko.
- w. Hondakina: edukiztaileak baztertzen duen edo botatzeko asmoa edo betebeharra duen edozein substantzia edo objektu.
- x. Merkataritza-hondakinak: jatetxe-zerbitzuetako, tabernetako, bulegoetako eta merkatuetako eta zerbitzuen sektoreko handizkako eta txikizkako merkataritzaren berezko jarduerak sortutako hondakinak.
- y. Toki-eskumeneko hondakinak: toki-erakundeek kudeatutako hondakinak, ekonomia zirkular baterako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 12.5 artikuluan ezarritakoaren arabera.
- z. Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak: eraikuntza- eta eraispene-jarduerak sortutako hondakinak.
- aa. Etxeko hondakinak: etxeko jardueren ondorioz etxeetan sortutako hondakin arrakatsua edo ez-arrakatsua. Etxeko hondakintzat hartzen dira, halaber, zerbitzu eta industrietan aurretik sortutako antzeko osaera eta kantitatea dutenak, baldin eta zerbitzuaren edo industriaren berezko jardueraren ondorioz sortzen ez badira. Kategoria honetan sartzen dira, halaber, etxeetan sortzen diren hondakinak, besteak beste, sukaldeko olio erabiliak, tresna elektriko eta elektronikoak, ehungintza, pilak, metagailuak, altzariak, tresnak eta koltxoak, bai eta eraikuntzako eta etxeko konponketako obra txikiak hondakinak eta obra-hondakinak ere.
- Etxeko hondakintzat hartuko dira bide publikoak, berdeguneak, atsedenelekuak eta hondartzak garbitzean sortutako hondakinak, hildako etxeko animaliak eta abandonatutako ibilgailuak.
- bb. Industria-hondakinak: jarduera nagusiaren ondorioz industria-jarduerak sortutako ekoizpen-, fabrikazio-, eraldaketa-, erabilera-, kontsumo-, garbiketako edo mantentze-prozesuen ondoriozko hondakinak.

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:

JON TXOPITEA ZUGADI  
IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA)

Kargua / Cargo:

Idazkari-kontuhartzailea / Secretario Interventor  
Alkatea / Alcalde

Data / Fecha:

06/02/2026 12:16  
06/02/2026 12:27



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguraren bidez egiaztu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalenegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>

70144708b0010616d5707ea189020c1cN

BARRUNDIAKO Udala  
(ARABA)



Ayuntamiento de BARRUNDIA  
(ÁLAVA)

cc. Udal-hondakinak: udal-eskumenekoak izango dira etxeko hondakinak eta merkataritza-hondakin ez-arriskutsuak.

i. Nahastutako hondakinak eta etxetik bereizita bildutako hondakinak, honako hauek barne: papera eta kartoia, beira, metalak, plastikoak, biohondakinak, zura, ehunak, ontziak, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak, pila eta metagailuen hondakinak, etxeko hondakin arriskutsuak eta tamaina handiko hondakinak, koltxoak eta altzariak barne.

ii. Nahastutako hondakinak eta beste iturri batzuetatik bereizita bildutako hondakinak, hondakin horiek, izaerari eta konposizioari dagokienez, etxeko hondakinen antzekoak direnean.

Udal-hondakinek ez dituzte barne hartzen ekoizpenetik, nekazaritzaetik, basogintzaetik, arrantzaetik, hobi septikoetatik eta estolderia-saretik eta hondakin-urak tratatzeko instalazioetatik sortutako hondakinak, araztegiko lohiak, balio-bizitzaren amaieran dauden ibilgailuak eta eraikuntza- eta eraipen-hondakinak barne.

Definizio hau sartzen da berrerabiltzeko prestaketaren eta birziklatzearen arloko helburuen aplikazio-eremua eta lege honetan ezarritako kalkulu-arauak zehazteko, eta ulertzen da kalterik egin gabe agente publiko eta pribatuen artean hondakinak kudeatzeko erantzukizunak banatzeari, ekonomia zirkular baterako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 12.5 artikuluan ezarritako eskumen-banaketaren .

dd. Hondakin arriskutsua: ekonomia zirkular baterako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen I. eranskinean zerrendatutako arriskugarritasun-ezaugarrietako bat edo batzuk dituen hondakina, eta Gobernuak hondakin arriskutsu gisa kalifikatzen duena, Europar Batasunaren araudian edo Espainiako Estatuaren parte den nazioarteko hitzarmenetan ezarritakoaren arabera. Definizio honetan sartzen dira, halaber, substantzia edo prestakin arriskutsuen hondarrak dituzten edo horiez kutsatuta dauden ontzi eta ontziak, salbu eta frogatzen bada ez dutela I. eranskinean zerrendatutako arrisku-ezaugarrietako bat ere.

ee. Udal-eskumeneko hondakin sanitarioak: jarduera medikoak edo sanitarioak gauzatzean sortutako hondakinak, biltzeko edo kudeatzeko baldintza espezifikorik eskatzen ez dutenak, inolako kutsadura espezifikorik eta infekzio-arriskurik gabe, ez sortzen diren zentroen barruan ez kanpoan, bai eta jarduera mediko edo sanitarioetan sortutako hondakin guztiak ere, baldin eta etxeko jardueren ondorioz etxeetan sortutako hondakinen antzeko ezaugarriak badituzte. Papera, kartoia, metalak, beira, janari-hondarrak, lorezaintzako hondakinak, altzariak eta tresnak dira, bai eta osasun-jarduera propiorik egiten ez den osasun-zentro edo -kontsulta

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TXOPITEA ZUGADI IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA)	Idazkari-kontuhartzailea / Secretario Interventor Alkatea / Alcalde	06/02/2026 12:16 06/02/2026 12:27



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguraren bidez egiaztu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:  
<https://udalenegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
 70144708b0010616d5707ea189020c1cN



bateko geletan edo eremuetan sortzen diren bestelako hondakinak ere, hala nola bulegoak, jantokiak, kafetegia, biltegiak, itxarongelak eta antzekoak.

- ff. Tamaina handiko hondakinak: udal-eskumenekoak diren hondakinak, baldin eta ohiko bilketa-sistemaren bidez biltzea zailtzen duten bolumen-, pisu- edo tamaina-ezaugarri bereziak badituzte.
- gg. Berrerabilera: hondakinak ez diren produktuen edo osagaien produktuak edo osagaiak helburu bererako erabiltzen diren edozein eragiketa.
- hh. Edukiontzia eta postontziak gailu elektronikoko bidez irekitzeko sistema: edukiontzia eta postontziak itxi eta irekitzea ahalbidetzen duten elementu mekaniko, elektronikoko eta komunikazioko multzoa, gailuak (txartelak edo antzekoak) erabiliz. Eragiketa horretako datuak eta datu horien kudeaketa lortzen dira.
- ii. Tratamendua: balorizatzeko edo ezabatzeko eragiketak, balorizazioaren edo ezabaketaren aurreko prestaketa barne.
- jj. Balorizazioa: edozein eragiketa, baldin eta bere emaitza nagusia bada hondakinak beste material batzuk ordeztzea helburu erabilgarri baterako balio izatea, bestela funtzio jakin bat betetzeko erabiliko liratekeen materialak ordezkatzeko, edo hondakina instalazioan edo ekonomian, oro har, funtzio hori betetzeko prestatzea.
- kk. Materialen balorizazioa: balorizazio energetikoa eta erregai gisa edo energia sortzeko beste bitarteko batzuk gisa erabiliko diren materialen eraldaketa ez diren balorizazio-eragiketa guztiak. Besteak beste, berrerabiltzeko prestatzea, birziklatzea eta betetzea barne hartzen ditu.

#### 4. artikulua. Erakunde eskuduna eta eskumen-esparrua.

- Barrundiako Udala da udal-eskumeneko hondakinen bilketa- eta garraio- zerbitzuen titularra, ingurumena eta pertsonen osasuna babesteko.
- Udalak eskumena du bere eremuan sortutako eta utzitako etxeko hondakinak biltzeko eta garraiatzeko, ordenantza honetan ezartzen den moduan eta hondakinei buruzko legerian eta toki-arabideari buruzko legerian aurreikusitako baldintzetan.
- Udalak, nahitaezko zerbitzu gisa, etxeko hondakinak bilduko ditu bere lurralde-eremu osoan, ordenantza honetan ezartzen den moduan eta hondakinei eta toki-arabideari buruzko estatuko eta autonomia-erkidegoko araudian ezarritakoarekin bat etorriz.
- Era berean, udalak honako hauek egin ahal izango ditu:



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Segururaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:  
<https://udalnegotioa.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>

70144708b0010616d5707ea189020c1cN

BARRUNDIAKO Udala  
(ARABA)



Ayuntamiento de BARRUNDIA  
(ÁLAVA)

- a. Bere eskumenen esparruan eta Estatuko esparru-planarekin eta hondakinak kudeatzeko autonomia- eta foru-planekin, hondakinak kudeatzeko bere programa eta/edo hondakinak prebenitzeko programarekin koordinatuta onartzea. Hala badagokio, hondakinak kudeatzeko planak hondakinak prebenitzeko programa jaso ahal izango du.
- b. Merkataritza-hondakin arriskugabeak jasotzea, hargatik eragotzi gabe hondakin horien ekoiizleek beren kabuz kudeatu ahal izatea 7/2022 Legearen 20.3 artikuluaaren bigarren paragrafoan aurreikusitako baldintzetan, ordenantza honetan ezarritako baldintzetan.
- c. Industria-jatorriko etxeko hondakinak jasotzea, ordenantza honetan ezartzen diren baldintzetan.
5. Udalari dagozkio zaintzeko eta ikuskatzeko ahala eta zehatzeko ahala, bere eskumenen esparruan, aurreko apartatuen arabera, ordenantza honetan ezarritakoaren arabera.
6. Ordenantza honetan ezarritako helburuak edo udal-eskumeneko hondakinei buruz indarrean dagoen araudian aurreikusitakoak betetzen ez badira, udalak ordenantza honetan ezarritako neurriak aldatu ahal izango ditu, helburu horiek betetzen direla bermatzeko.

#### 5. artikulua. Zerbitzuak ematea.

1. Udalak ordenantza honetan eta berau garatzeko tresnetan aurreikusitako hondakinak biltzeko zerbitzuak emango ditu, toki-arabidearen araudian aurreikusitako edozein kudeaketa-moduren bidez.
2. Etxeko hondakin arrisksutsuen edo etxeko hondakinen kasuan, haien ezaugarri bereziek kudeaketa zailtzen badute edo garraioan, bilketan, balorizazioan edo deuseztatenean nahasmenduak eragin baditzakete, udalak betebeharrak hauetakoren bat edo guztiak ezarri ahal izango dizkie edukitzaileei:
  - a. Ezaugarri horiek ezabatzeko edo murrizteko neurriak hartzea.
  - b. Erabaki den moduan eta lekuan uztea.
  - c. Bilketa erabiltzaileak eskatu ondoren egin behar izatea, ordenantza honetan araututako bilketa bereziko arabidean.
  - d. Beren kabuz eta udal-bilketako sistematik kanpo kudeatzea nahitaez, kudeatzaile baimendu bati edo erregistratutako biltzaile bati entregatuz, kudeatzaile baimendu bati entregatzea bermatzeko, baldin eta udalak aurreikusitako bitartekoen bidez jaso ezin badira. Etxeetan sortutako etxeko hondakinei dagokienez, ezin izango da neurri hori hartu araudi espezifiko batek hala ezartzen ez badu. Nolanahi ere, jabeek beren borondatez erabaki ahal izango dute hondakinok zuzenean hondakinen kudeatzaile bati ematea, ordenantza honetan aurreikusitako kasuetan.
3. Larrialdi-egoeretan edo ezinbesteko egoeretan, bilketa-zerbitzua normaltasunez eman ezin denean, eta udalak egiaztatu, deklaratu eta jakinarazi ondoren, zerbitzua aldatu edo aldi baterako eten ahal izango

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:

JON TXOPITEA ZUGADI  
IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA)

Kargua / Cargo:

Idazkari-kontuhartzailea / Secretario Interventor  
Alkatea / Alcalde

Data / Fecha:

06/02/2026 12:16  
06/02/2026 12:27



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:  
<https://udalenegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
 70144708b0010616d5707ea189020c1cN



da. Kasu horietan, erabiltzaileek ez dituzte hondakinak utziko zerbitzua normalizatu arte edo kasu bakoitzean dagozkion jarraibideak eman arte. Salbuespen horiek aplikatzeak ez du inolaz ere eskubiderik emango erabiltzaileek zerbitzuak emateagatik ordaindu behar duten zenbatekoa murrizteko edo kalte-ordaina jasotzeko, ordenantza honen arabera.

**6. artikulua.** Udal-eskumeneko hondakinen erabiltzaileen betebeharrak eta titulartasuna.

1. Udal-billetako zerbitzuaren erabiltzaile diren hondakin-ekoizleek, oro har, honako betebeharrak izango dituzte:
  - a. Jatorrian hondakinak behar bezala bereiztea, ordenantza honetan ezarritako frakzioen arabera, eta horiek edukiontzietan – erabili ondoren estalkiak itxiz – edo ordenantza honen arabera horretarako ezarritako bilketa-puntuetan uztea. Aplikatzekoa denean, hondakinak eta/edo edukiontzia bide publikora ateratzea, zerbitzu publikoak jaso ditzan, udalak ezarritako ordu eta lekuetan.
  - b. Hondakinak tolestu edo zatikatzea, kasuen arabera (kartoizko kutxak, zura, plastikoa, etab.)..
  - c. Kalteak eragin ditzaketen hondakinak (beira lau, loza, latorria, etab.) segurtasunez uztea.
  - d. Hondakinen edukiontzia behar bezala erabiltzea, behartu edo hondatu gabe.
  - e. Aldez aurretik itzalita eta hotz utzi errautsak
  - f. Edukiontzia kargatzeko, deskargatzeko, mantentzeko, lekualdatzeko eta garbitzeko eragiketarik ez eragozte.
  - g. Ez utzi hondakinik, harik eta zerbitzua normalizatu arte, bilketa-zerbitzua ematea eragozten duten ezinbesteko egoeretan. Horren berri garaiz emango da.
  - h. Hondakinak uzteko eta entregatzeko ordutegiak betetzea.
  - i. Bideetan edo jendearen gozamenerako guneetan (parkeak, etab.), paperontzietan edo horretarako prestatutako edukiontzietan sortutako hondakinak edo zaborrak botatzea. Halakorik ez badago, hurbilen dauden edukiontzia edo tokietan utzi beharko dituzte, frakzioaren eta izaeraren arabera.
  - j. Edukiontzia bat beteta badago, ez dira hondakinak edukiontzia jakin horretan edo bide publikoan utziko. Kasu horretan, hondakinak dagokion frakziotik hurbilen dauden edukiontzietara eraman beharko dira, edo hustu arte itxaron beharko dute.
  - k. Udalari ematea arriskutsuak izan daitezkeen hondakinei buruz eskatzen duen informazioa, eta, arriskutsuak badira, haien jatorriari, ezaugarriei, xedeari eta abarri buruzkoa.
2. Udalak baztertu ahal izango du behar bezala utzita ez dauden hondakinak kentzea.
3. Sortutako hondakinen izaerak edo kantitateak hala justifikatzen badu, udalak baldintza bereziak eskatu ahal izango ditu, hala nola edukiontzietan poltsa jartzea edo hondakinak ordutegi jakin batean biltegiatzera behartzea.



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:  
<https://udalenegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
 70144708b0010616d5707ea189020c1cN



4. Bilketa-zerbitzua erabiltzen ez duten merkataritza-hondakin ez-arriskutsuen ekoizleek jatorrian bereizi beharko dituzte hondakinak, zatika, eta aplikatu beharreko araudiaren arabera kudeatu beharko dituzte, eta udalak agiri bidez egiaztatu beharko du hondakin horien kudeaketa egokia dela, 7/2022 Legearen 20.3 artikulua bigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera. Horretarako, honako hauek egin beharko dituzte:

- Hondakin horiek jatorrian bereiztea eta higiene- eta segurtasun-baldintza egokietan mantentzea, beren esku dauden bitartean, eta hondakin-kudeatzaileei zatikien bidez bereizteko baldintza egokietan entregatzea, aplikatzekoa den araudiak xedatutakoari jarraiki.
- Hondakin horiek behar bezala bildu eta tratatu direla egiaztatzen duen agiria edukitzea, eta udalari bidaltzea, hala eskatzen zaionean.
- Dokumentazioan adierazten bada atal honetan araututako hondakinak baten kudeaketa okerra edo defizitariora egin dela, 5 eguneko epean konpondu beharko da; bestela, ekoizlea biltzeko udal-zerbitzuari atxiki beharko zaio.

5. Herritarrek Udalari edo agintaritzaren agenteei jakinaraziko diete abandonatutako hondakinak edo zaborra dagoela bidean edo espazio publikoetan sakabanatuta, hala nola abandonatutako ibilgailuak, altzariak, hildako animaliak, eraikuntza- eta eraipen-hondakinak, etab..

6. Ordenantza honetan araututako udal-eskumeneko hondakinek titular arduratsu bat izango dute beti, hondakin horien ekoizleari edo edukitzaileari dagokiona.

Administrazio-erantzukizunetik salbuetsita geratuko dira hondakinak kudeatzeko udalari ematen dizkietenak, ordenantza honetan eta aplikatu beharreko gainerako araudian jasotako aginduen arabera, eta udalak une horretan horien gaineko jabetza eskuratuko du. Erantzukizun horretatik salbuetsita daude, halaber, hondakin horiek kudeatzaile baimendu edo erregistratua den pertsona fisiko edo juridiko bati ematen dizkietenak, ordenantza honetan aurreikusitakoaren arabera.

7. Etxeko animalia baten jabeak, txakur gidarien titularrak diren itsuek izan ezik, txakurrak bide publikoan eta espazio publikoetan egindako libratzeak jaso beharko ditu, eta horretarako identifikatutako edukiontzietan edo, halakorik ezean, espazio publikoetan instalatutako paperontzietan utzi beharko ditu.

#### 7. artikulua. Debekuak.

Ordenantza honetako 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, hondakinak behar bezala biltegitatu ondoren, udalaren jabetzakoak izango dira. Hala, debekatuta dago:

- Bide publikoan edo udalerriko edozein lekutan, hondakin mota horretarako prestatu gabeko edukiontzietan edo udalak zehaztutako lekuez bestelakoetan hondakinak uztea.
- Hondakinak edukiontzietan uztea ordenantza honetan ezarritakoa urratuz.



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Segururaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:  
<https://udalnegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
 70144708b0010616d5707ea189020c1cN



- c. Leku publikoetan horretarako jarritako zakarrontziak ez diren beste leku batzuetan bolumen txikiko hondakinak uztea, hala nola paperak, txikleak, zigarrokinak, gozokiak, oskolak eta antzeko hondakinak. Halaber, bilketa-zerbitzu espezifikoak ezarrita duten hondakinak zakarrontzietan uztea, poltsetan bilduta.
- d. Edukiontzia edo horien edukia manipulatzeko, zakarrontziak edo bestelako edukiontzia iraultzea edo erauztekoa, eta edukiontzia beren lekuetatik kanpo eramatea.
- e. Edukiontzia ordenantza honetan aurreikusitakoez bestelako helburuetarako erabiltzea.
- f. Bizitza publikoan dauden edukiontzietan edo bilketa-guneetan utzitako hondar-material oro hautatzea eta aprobetxatzea.
- g. Edukiontzietan uzteko hondakinen dentsitatea handitzeko instalazioak egitea, udalaren berariazko baimenik gabe.
- h. Edukiontzietan pintadak edo grafitiak egitea, edozein motatako kartelak edo itsasgarriak itsastea edo publizitate-helburuekin erabiltzea.
- i. Hondakinak estolderia-saretik botatzea (zigarrokinak, pixoihalak, janari-hondarrak, etab.), baita alde zurretik birrinduta ere.

**8. artikulua. Erantzukizuna.**

Hondakinen edukitzaileek ez dute inolako erantzukizunik izango hondakin horiek eragin ditzaketen kalteengatik, baldin eta entregatzean ordenantza hau eta aplikatzekoak diren gainerako arauak bete badira.

**9. artikulua. Beste kudeatzaile batzuk.**

Pertsona fisiko edo juridiko bat ere ezin izango da aritu udalaren eskumeneko etxeko eta/edo merkataritzako hondakinak biltzen eta aprobetxatzen, udalaren berariazko baimenik gabe.

**10. artikulua. Kale-garbitzea.**

Bideak garbitzeko lanetan sortutako hondakinak (eskuzko ekorketa edo ekorketa mekanikoko hondakinak, orriak eta bestelako hondakinak) udalaren edukiontzietan utziko dira, horretarako jarrita. Kokapena, edukiontzi-mota eta jarri beharreko unitate-kopurua udalak baimendu beharko ditu.

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TXOPITEA ZUGADI IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA)	Idazkari-kontuhartzailea / Secretario Interventor Alkatea / Alcalde	06/02/2026 12:16 06/02/2026 12:27



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiaztu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:  
<https://udalenegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
70144708b0010616d5707ea189020c1cN

BARRUNDIAKO Udala  
(ARABA)



Ayuntamiento de BARRUNDIA  
(ÁLAVA)

**11. artikulua.** Hondakinak kudeatzeko udal-zerbitzuak finantzatzea.

Ordenantza honetan aurreikusitako hondakinak kudeatzeko udal-zerbitzuen finantzaketa dagokion ordenantza fiskalean ezarriko da, hau da, bilketa-zerbitzuak finantzarioki jasagarriak izango dira, kostuen eraginean "kutsatzen duenak ordaintzen du" printzipioa aplikatuz.

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TXOPITEA ZUGADI IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA)	Idazkari-kontuhartzailea / Secretario Interventor Alkatea / Alcalde	06/02/2026 12:16 06/02/2026 12:27

**II. TITULUA. BILKETA ZERBITZUA****1. KAPITULUA. BILKETA ZERBITZUARI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK**

Kapitulu honek arautuko du zein baldintzatan emango dituen Udalak hondakinak biltzeko zerbitzuak eta zein baldintzatan erabiliko dituen erabiltzaileak.

**12. artikulua. Erabiltzaileak.**

Zerbitzu horiek emateko, erabiltzaile-kategoria izango dute helbidea udalerrian duten edo ordenantza honen xede diren zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiek, baldin eta udalak hondakinak biltzeko, tratatzeko eta aprobetxatzeko eskumena badu.

**13. artikulua. Bilketaren xedea.**

Hondakin hauek bilduko dira:

- Herritarrek beren etxebizitzetan sortzen dituzten elikaduraren eta etxeko kontsumoaren hondakinak.
- Herritarrek espaloiak ekortzetik sortutako hondakinak.
- Merkataritza-lokaletan sortutako bilgarriak, ontziak, enbalajeak eta bestelako hondakinak.
- Zerbitzu-, merkataritza- eta industria-jarduerak sortutako hondakin-materialak, etxeko hondakinen antzeko ezaugarriak dituztenak.
- Tabernetan, jatetxeetan eta gainerako establezimenduetan kontsumitutako hondakinak, baldin eta elikagai kozinatua edo edariak ematen badituzte. Era berean, supermerkatuetan, autozerbitzuetan eta antzeko establezimenduetan ekoizitakoak.
- Egoitzetan, hoteletan, ikastetxeetan eta beste establezimendu publiko edo ireki batzuetan sortutako kontsumo-hondakin orokorrak.
- Udal-merkatuen jarduerak sortutako hondakinak.
- Etxebizitzetan eta dendetan sortutako errautsak.
- Etxeko tamaina handikoak, bai eta arropa, oinetakoak eta antzeko produktuak ere.
- Jaberik gabeko etxeko animaliak, bide publikoan hilak.
- Herritarrek beren etxebizitzetan sortzen dituzten etxeko hondakin arriskutsuak.
- Sendagaien eta horien ontzien hondakinak.
- Beren izaera edo konposizioagatik etxeko hondakinekin pareka daitekeen beste edozein.



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Segururaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:  
<https://udalenegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
70144708b0010616d5707ea189020c1cn

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TXOPITEA ZUGADI IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA)	Idazkari-kontuhartzailea / Secretario Interventor Alkatea / Alcalde	06/02/2026 12:16 06/02/2026 12:27



BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Segururaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:  
<https://udalenegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
70144708b0010616d5707ea189020c1cN

**BARRUNDIAKO Udala**  
(ARABA)



**Ayuntamiento de BARRUNDIA**  
(ÁLAVA)

Lorezaintzako eta zuhaitzak inautseko hondakinak ere zerbitzatu egingo dira, ordenantza honek ezartzen dituen baldintzetan.

Era berean, eraikuntza- eta etxe-konponketako obra txikietatik datozen hondakinak eta obra-hondakinak ordenantza honetan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
JON TXOPITEA ZUGADI IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA)	Idazkari-kontuhartzailea / Secretario Interventor Alkatea / Alcalde	06/02/2026 12:16 06/02/2026 12:27



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección:  
<https://udalenegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>  
 70144708b0010616d5707ea189020c1cN



**14. artikulua. Baztertzeak.**

Bilketa-zerbitzuan inola ere sartuko ez diren hondakinak:

- a. Hondakin arriskutsuak, etxeetakoak izan ezik.
- b. Industria-merkataritzako hondakinak, beren izaeragatik, osaeeragatik edo aurkezpenagatik etxeko hondakinekin parekatzen ez direnak.
- c. Erabiltzen ez diren pneumatikoak, horiekin lotutako jarduera ekonomikoetatik datozenak.
- d. Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategietako hondakinak, animalia hilak barne.
- e. II eta III. taldeko hondakin kliniko kalifikatuak.
- f. SANDACH (gizakiek jateko ez diren animalia-azpiproduktuak) gisa kalifikatutako hondakinak, haragi-ustiakuntzetatik eratorritakoak, harategi, arrandegi eta abarretatik datozenak, urriaren 21eko 1069/2009 EE Erregelamenduaren arabera kalifikatuak. Erregelamendu horrek gizakiek jateko ez diren animalia-jatorriko azpiproduktuei eta produktu deribatuei aplikatu beharreko osasun-arauak ezartzen ditu.
- g. Hondakin likidoak edo likidotu daitezkeenak.
- h. Hondakin erradioaktiboak.
